



## **UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN OHARRA COVID-19AK ERAGINDAKO ALDAKETEN INGURUAN**

Urola Erdiko Mankomunitateak aldaketak egin ditu hondakinen bilketan COVID-19 Koronabirusak sortu duen alarma-egoerak eraginda; hauek dira aldaketak:

- **Sarbide-kontrol osoa kendu du Mankomunitateko herri guztietan:** Aizarnazabalgo ekarpen guneeetan; Azpeitiko edukiontzietan eta ekarpen guneeetan; Beizamako ekarpen guneeetan; Bidania-Goiatzeko ekarpen guneeetan; eta Zestoako ekarpen guneeetan. Ondorioz, herritarrek ez dute txartelik erabili beharko ekarpen guneeetara sartzeko edo hondakinak gaika uzteko, hau da, irekita egongo dira aldi oro.
- **Bolumen handikoen atez ateko bilketa bertan behera geratu da** egoera normaldu arte: ezin da egoera honetan bolumen handiko bilketa egitera etxez etxe ibili; kutsatzeko arriskua handituko baigenuke.
- Poltsa konpostagarriak **ohiko moduan banatzen dira**, baina gune batzuetako dendak itxi direnez, **hauek dira herri bakoitzean banatzen diren dendak:**
  - Azpeitian: **Inar optika** (Jose de Artetxe kalea), **Itzira janari-denda** (Harzubia 24), eta **Urrestillako estankoa** (Kalebarrena 2, Urrestilla).
  - Azkoitian: **Lujan liburu eta prentsa denda** (Santa Klara kalea 41, 3.)
  - Zestean: **Unide Janari-denda** (Gurutze kalea 3), **Errasti Elorza Coviran** janari-denda (Gesalaga kalea 6-8), **Miantxa janari-denda** (Gesalaga kalea 5); eta **Ainara ileapaindegia** (Narkis Balentziaga 2, Arroa behea)
- **Azkoitiko garbigunea itxita egongo da.**
- **Aurrez aurreko harrera zerbitzua bertan behera geratzen da**, herritarrek ezin dutelako bulegora etorri, eta ezin delako bermatu kutsadurarik gabe harrera egitea bertan. Edozein zalantza edo arazo izanez gero erabili bide hauek: **telefonoa 943857319**; **e-posta [ueue@urolaerdia.eus](mailto:ueue@urolaerdia.eus)**; **zerbitzu telematikoak <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=599&hizkuntza=EU>**

Gainerako zerbitzu guztiak bere horretan daude: hondakinak ohiko moduan bilduko dira.

Urola Erdiko Mankomunitateak dei egiten die herritarrei osasun arloko aholkuak zorrotz betetzeko, eta hondakinak gaika uzterakoan babes neurriak hartzeko: latexko eskularruak erabiltzea edota ondoren eskuak behar bezala garbitzea.



## **NOLA KUDEATU HONDAKINAK COVID-19 BERRETSITAKO DIAGNOSTIKOA BADUZU EDO BERROGEIALDIAN BAZAUDE**

Osasun Ministerioak onartu du protokolo berezi eta zehatza azaltzeko nola kudeatu behar dituzten hondakinak COVID-19 coronavirusaren berretsitako diagnostikoa duten herritarrek eta diagnostikorik gabe berrogeialdian dauden herritarrentzat. Berri honekin batera bidaltzen zaizuen protokoloa osorik, eta zorrotz bete behar duzue bertan azaltzen dena.

**Honela kudeatu behar ditu hondakinak COVID-19 berretsitako kasurik bada edo berrogeialdian bada:**

- Urola Erdiko Mankomunitatera deitu: **943857319**, arreta jarraitua izango du goizeko **9etatik arratsaldeko 20etara astelehenetik igandera**; edo **ueue@urolaerdia.eus** e-posta helbidera. Telefonoz edo idatziz emandako aholku eta aginduak zorrotz bete.
- **Hondakinak ez dituzte bereizi behar**: guztia poltsa batean sartu eta errefusaren edukiontzira bota behar dituzte latexko eskularruekin babestuta, guztia hiru poltsetan sartuta (bata bestearen barnean), telefonoz aipatutako modua zorrotz beteta.
- **Zestoan, atez ateko bilketan honakoa egin beharko dute**:
  - **Mankomunitateak adieraziko dio nola sartu behar dituen hondakinak poltsetan (3 poltsetan, bata bestearen barruan, sartu behar dituzte hondakinak)**; lan-moldea aldatu egingo da etxebizitzako norbait etxetik atera badaiteke edo laguntzarik badute; etxetik ezin atera badaude eta laguntzarik ez badute hau da egin beharrekoa:
    - Mankomunitatea harremanetan jarriko da herritarrekin telefonoz hondakinak prest izateko eta atarian kuboak duela esateko
    - Mankomunitateko biltzailak joango dira arratsaldeko 20etan etxera eta kuboak jarriko die etxe atarian tapa irekita, atzeratu eta adieraziko die hondakinak kuboan sartzeko
    - Herritarrak ezingo du kuboak ukitu eta latexko eskularruak jantzita izango ditu
    - Biltzaileek kuboak erretiratuko dute.

**Urola Erdiko Mankomunitatea.**